

## *Ituren*

Aurkibidea

### **Udalerria: Ituren**

#### **Sarrera**



Ituren Nafarroa Garaiko ipar-mendebaldeko udalerria da, Malerrekako eskualdekoa. Iparraldean Arantzarekin egiten du muga, Elgorriaga eta Donezteberekkin ekialdean, Zubietarekin mendebaldean, eta Beintza-Labaien, Urroz eta Oizekin hegoaldean.

- **Biztanleak:** 525
- **Euskaldunak:** %92,6

#### **Ahotsak.eus-eko datu orokorrak**

- Hizlariak: **4**
- Zintak: **4**
- Pasarteak: **27**

- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **27**

## Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Euskararen biziberritzea Bortzirietan 1970-1990
- Lekarozko institutuko kantagintzako ikasleak

## Hizlariak

### **Joxe Mari Altxu Almandoz** (1940-2025)



Iturengo Sarandia etxean jaioa, ama bertakoa zuen eta aita ere Iturengoa. Bost senide ziren (hiru anaia eta bi arreba). Aurretik familian hainbat joan ziren Ameriketara, Argentinara batez ere, eta senitartekoak zituzten Californian ere. Hiru anaiak joan ziren Ameriketara. 1963an joan zen Joxe Mari, 23 urterekin. Orovillen (California) egon zen artzain, sei urtean, eta esnetegi batean ere jardun zuen. Ondoren San Franciscora joan zen lanera; lorazain ibili zen handik aurrera: Bakersfielden kokatu zen eta enpresa txiki bat sortu zuen. Bi aldiz ezkondu zen, eta baita bi aldiz banandu ere. Erretiroa hartu zuenean Euskal Herrira itzuli zen (54 urteren buruan). Elizondo zahar etxean elkarrizketatu genuen.

### **Joxe Fermin Ariztegi Bera** (1943)



Joxe Fermin Iturenen jaio zen. Familian animaliak zituzten eta baserri-lanak egiten zituen senideekin batera. 20 urterekin Ameriketara joan zen artzain lanetara eta zortzi urte pasa zituen han. Handik itzuli eta Iturengo zentrallean ibili zen lanean. Geroztik Iturenen bizi izan da.

### **ITU-001 Hizlari ezezaguna**



### **Patxi Iñigo Ariztegi** (1942)

## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

# Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

## 1. Patxiren aurkezpena (ITU-004/001)

Iturenen sortu zen Patxi, eta 80 urte ditu elkarrizketa hau egin diogunean. Iruñeko seminarioan ikasi eta Berara joan zen.

## 2. Euskararen egoera Beran eta euskara klaseak eskolakoei (ITU-004/003)

Berara ailegatu zelarik, harritu egin zen herrian ez zuelako euskara aditzen. Baserritar baten bat aditzen zuen euskaraz, baina, bertzenaz, den-denak erdaraz aritzen ziren herrian. Auzoetan, ordea, egoera aldatu eta denak euskaraz aritzen ziren. Eskola ere gaztelaniaz zen, eta hori ikusita, Patxi euskara irakasteko eskaintza egin zien. Eskolaz kanpo bi talde osatu zituzten: euskaraz zekitenak (baserritarrak gehienak) alfabetatzeko eta ez zekitenak baina ikasi nahi zutenak.

## 3. Ikastola eta gau eskolen sorrera (ITU-004/004)

1974 inguruan, ikastolak sortu ziren Beran eta Lesakan, eta horrek giroa aldarazi zuen; euskararen inguruko giro ona sortu zuen. Horren bidetik, gau eskolak sortu zituzten; herriko etxean helduentzako euskara klaseak ematen hasi ziren Bego eta Itxaro Aranibar eta Patxi. Giro hagitz ona zuten gau eskoletan eta jende aunitz joaten zen.

## 4. Euskararen alde aritzeko gogoia nondik (ITU-004/005)

Seminarioan zelarik, azken urteetan euskararen aldeko giroa sortu zen bertan; horrek Patxi markatu zuen. Horren eraginez, euskararekiko interesa biztuta, herrietako jendearen testigantzak biltzen aritu zen Patxi. Bildutako materialarekin ez zekien gero zer egin, eta euskal filologia ikastea erabaki zuen. Hala, euskara lantzeko eta horren alde egiteko gogoia eta bidea ireki zituen.

## 5. Altzateko eliza euskalduntzen (ITU-004/006)

Berako parrokiako erretorea nahiko euskaltzalea zen. Baina Altzaten, aldiz, maristak zeuden, eta denak erdaldunak ziren, beraz, dena erdaraz egiten zuten, baita elizan ere. Hori zela eta, Patxiri kosta egin zitzaion Altzateko elizan euskara sartzea; herritar batzuk kontra izan zituen. Eskolan euskara ematen hasi zelarik, batzuk kontra paratu ziren; errate baterako, guardia zibilak.

## 6. Gau eskolak (ITU-004/007)

Gau eskoletara mota guzietako jendea joaten zen; gazteak eta zaharragoak zirenak. Giro hagitz ona izaten zuten klaseetan. Klase haiek prestatzeko, Txillardegiren liburuak erabiltzen zituzten, ariketak prestatu, elkarrizketak egin...

## 7. Berako karrketan euskara gehiago (ITU-004/008)

Poliki-poliki, ikastola eta gau eskolarekin, euskara gehiago aditzen hasi zen Berako karrketan. Eskola euskalduntzeak ere hori eragin zuen.

## **8. Bizpahiru urte gau eskoletan (ITU-004/009)**

Bizpahiru urte aritu zen Patxi gau eskoletan klaseak ematen.

## **9. Euskal filologia ikasteko arrazoia (ITU-004/010)**

1980an, euskal bestak antolatu ziren Beran. Egun horretarako, hitzalditxo bat prestatzeko eskatu zioten Patxiri. Hala, Bortzirietako erakusleei buruzko lan bat prestatu zuen berak. Lan horrek hura landu beharra sortu zion Patxiri, horregatik erabaki zuen euskal filologia ikastea.

## **10. Euskal filologia ikasketak (ITU-004/011)**

Aski gustura aritu zen Patxi euskal filologia ikasten. Halere, lehenbiziko urtean ez zen klase presentzialetara joan ahal izan, astean 24 orduz ematen baitzituen euskara klaseak eskoletan. Soziolinguistika ikasgaia izan zuten karreran, eta Patxik Beran ikerketa soziolinguistiko bat egiteko proposamena luzatu zion irakasleari, behar handia sumatzen baitzuen.

## **11. Ikerketa soziolinguistikoa Bortzirietako eskoletan (ITU-004/012)**

Ikerketa soziolinguistiko bat egin zuen Patxik Beran. Kezkatua zegoen herrian euskara guti egiten zelako eta hori ikertu nahi zuen. Berako eskola hartu zuen ardatz, baina mojen eskolan eta Lesakako eskolan ere aritu zen ikertzen. 12-14 urte bitarteko haurrak ikertu zituen; Bortzirietan 417 neska-mutiko ziren, eta denekin egon zen.

## **12. Ikerketa soziolinguistikoko emaitzak (ITU-004/013)**

Ikerketa hark emandako emaitzak Patxik uste zuena baino okerragoak izan ziren. Emaitzak zeintzuk izan ziren aipatzen du.

## **13. Ikerketa soziolinguistikoko emaitzak II (ITU-004/014)**

Garai hartan, euskarak ez zuen prestigiorik, eta gaztelania ongi ikasi behar zen; moda gisakoa zen. Ikerketaren emaitzek agerian utzi zuten euskara, poliki-poliki, belaunaldiz belaunaldi galtzen ari zela, batez ere, Bera eta Etxalarren

## **14. Ikerketa soziolinguistikoko emaitzak III (ITU-004/015)**

Haurren erabilera datuak ematen ditu Patxik. Gaztelaniak presentzia hagitz handia zuen neska-mutikoen harremanetan.

## **15. Eskolak onura euskarari (ITU-004/016)**

Lehen, euskara etxean eta lagunaren artean ikasten zen. Gisa horretan, bakoitzak bere jokaera, egiturak, erranerak... ematen zizkion. Egun, aunitzek eskolan ikasten dutenez euskara eta irakasle aunitz eta materiala kanpokoak direnez, lehenagoko xehetasun horiek galdu egin dira. Dena dela, eskolak gehiago eman dio euskarari kendu baino.

## **16. Neska-mutikoak erdaraz (ITU-004/017)**

Ikerketako emaitzetan ageri zenaren arabera, neska-mutikoek euskara baloratzen zuten, baina gero praktikan ez zuten erabiltzen. Baserritarrak beren artean euskaraz aritzen ziren, baina kaleko jendearekin nahasten zirelarik, gaztelaniaz egiteko joera zuten.

## **17. Ikerketako emaitzak txarrak (ITU-004/018)**

Ikerketako emaitzek euskararen egoera txarra utzi zuten agerian. Frankismoak eragina izan zuen, baita eskola gaztelaniaz izateak ere. Gainera, seme-alabek gaztelaniaz ongi ikasteko nahia zuten gurasoek.

## **18. Egoerari buelta ematea (ITU-004/020)**

Ikastolaren sorreraren eta gau eskolen inguruan sortutako giroak egoerari buelta eman zion.

## **19. Euskararen garapena Bortzirietan (ITU-004/021)**

Egun, Bortzirietan, lehen euskaraz sumatzen zituen neska-mutiko batzuk orain gaztelaniaz aditzen ditu. Patxiren ustez, egungo hedabide eta sare sozialek kalte egiten ahal diote euskarari. Halere, euskararen garapena nabaritu da 80ko hamarkadatik honat.

## **20. Ikerketa soziolinguistikoa zabaldu gabe (ITU-004/022)**

Patxik egindako ikerketa soziolinguistikoa ez zen zabaldu.

## **21. Iruñeko hizkuntza eskolan klaseak (ITU-004/023)**

Iruñeko hizkuntza eskolan ere arituz zen Patxi, 20 urte eman zituen bertan.

## **22. Hizkuntza ohitura (ITU-004/024)**

Euskaraz dakienak Patxirekin euskaraz egiten du. Hizkuntza ohitura aldatzea posible dela aipatzen du.

## **23. Gibelera begira (ITU-004/025)**

Gibelera begira, Patxi gustura dago egindako lanarekin. Aldaketa nabaritzen dela aipatzen du.

## **24. D ereduaren sarrera (ITU-004/026)**

D eredia eskoletan sartzeko orduan, Valentziako inspektore batek garrantzi handia izan zuen. Herriz herri joan zen hura gurasoei D ereduak zuen garrantzia azaltzera. Baziren D eredia ezartzea nahi ez zuten gurasoak

## **25. Euskararen alde apez guzien artean (ITU-004/028)**

Bortzirietako apez guziak lerro berean zeuden euskarari zegokionez, eta horrek aunitz lagundu zuen hizkuntzaren alde aritzeko garaian.

## **26. Bortzirietako euskararen berezitasunak galtzen (ITU-004/029)**

Bortzirietako euskararen berezitasunak galtzen ari dira eta horrek pena ematen dio Patxiri. Halere, hizkuntzak garatu egiten dira, eta garrantzi handiagoa ematen dio Patxik euskarak izan duen bultzadari.

## **27. Ikerketa gehiagorik ez (ITU-004/030)**

Orain Patxik ez du asti handirik ikerketekin segitzeko. Gainera, adinak horretarako gaitasuna kentzen duela aipatzen du.



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com